

Liburuak

KRITIKA

Ipuin-kontalaria

Pello Añorga; Jokin Mitxelena (irudiak).
Aizkorri argitaletxea, "Irakurri, bizi" bilduma.
5 urtetik aurrera. 36 orrialde. 6 euro.

Haur eta gazte literatura

Mann López Gaseni



Baten prezioan, hamaika istorio

OSO ZAILA DA hain orrialde gutxitan halako konplexutasun narratiboa topatzea. Hala ere, Pello Añorga *Ipuin-kontalaria* honetan saiatu da, eta emaitza dotorea lortu du haur txikiaren ulermenaren kalterik gabe.

Funtsean, *Ipuin-kontalaria* metanarrazioa da, ume-talde baten aurre-ra ipuin bat kontatzera doan kontalariaren jardunaren deskribapena, narrazio baten kontakizuna. Baina nobedadea da metafikzio horren narrazioa ez datorkigula bere lanari buruz gogoeta egiten duen narratzaile batengandik, kontaketaaren lekukoa den ume batengandik baizik. Lekuko hori ume-talde osoaren ordezkari den "gu" baten bidez mintzatzen da, objektibotasun handiz mintzatu ere.

Eta, gure begien aurrean, txinatar kutxen jolasa zabaltzen da. Kutxarik handiena, noski, eskuartearen dugun liburua da; horren barruan istorio nagusia dago: ipuin-kontalariaren saioaren narrazioa; horren barruan dagoen hurrengo kutxa ez da metaforikoa, benetakoa baizik: "ipuin-kontalariak kontatzeko erabiltzen duen kutxa, dena hitzez, letrez eta zirriborroz hornitua"; bertatik aterako du kontalariak hurrengo "kutxa", urrezko liburu bat; horren barruan, berriz, ipuin-kontalariak kontatuko dituen bigarren mailako istorioak.

Eta, kutxa guztiak zabaldu diren gisa berean, itxi egingo dira geroxeago; denak, bat izan ezik: "Ate zuri-beltza itxi, urrezko liburu itxi, kutxa dena itxi, eta esan digu Ipuin-kontalariak gure begiei begiratzu, leihoak izango balira bezala: -Itxiak ala irekiak? -Eta guk erantzun: -Irekiak. -Eta Ipuin-kontalariak gaineratu digu: -Zuen begiak leiho irekiak. Eta kutxa hartu, eta ipuina bukatu". Horrelaxe ixten da, Ipuin-kontalariaren ipuina ez ezik, haur lekukoaren narrazioa ere.

Ipuin-kontalaria liburua ipuinak ahoz zein idatziz kontatzearen ofizioa oso ondo ezagutzen duen egile baten ohiko baliabideez beterik dago: entzule/irakurleen arreta bereganatzeko formula errimatu ugari -batzuk besteak baino lortuagoak-, interpretazio anitzak izan ditzaketen figurak, ustekabearen erabilera, irakurle txikiarentzat (Txanogorritxo) edo kozkorragoarentzat (urrezko giltza) identifikagarriak diren testuartekotasun-jolasak, eta lanean hasi zenetik gaur egun arte defenditu duen umeak inozoak ez direlako premisa garrantzitsuari erantzuten dioten metaforak, kasu honetan munduari zabaldutako atak eta leihoak.

Gainera, idazlearen eta irudigilearen arteko kimika onak ez du hutsik egin: Mitxelenaren irudiak maila bikaineak dira, eta testuarekin batera batasun biribila osatzen dute.

Inkiszioaren ankerkeriaren historia

Gaiak argitaletxearen Oinarritzko Liburutegia saileko azken nobedadeak Inkiszioa du hizpide. 1233an sortua, sei mendez heresia jazarri zuen muturreko instituzio katoliko horrek. Liburuaren egileek azpimarratu dutenez, erlijio-, politika- eta pentsamendu-polizia izan zen Inkiszioa; izua, fanatismoa eta

ankerkeria baliatu zituen gutxiengoak zapaltzeko, hala nola, euskaldunak eta Amerikako indiarrek. Ez horiek bakarrik ordea: Baldotarrak, kataroak, tenplarioak, juduak, protestanteak, sorginak, musulmanak... denek izan zuten Gaztelako Errege Katolikoek sortutako erakundearen ezpata lepoan. **I**



Inkiszioa heresiaren kontra.
Alizia Stürtze / Koldo Ortega.
Gaiak.
164 orrialde.
19 euro.

Trapu Zaharra antzerki taldeak 25 urte

Erraz esaten da, mende laurden. 25 urte bete zituen 2007an Trapu Zaharra antzerki konpainiak eta ospatzeko liburua argitaratu du Artezblai. Hainbat pertsonaren artean osatu dute taldearen ibilbidea laburbiltzen duen lan hau: Carlos Gil, Miguel Muñoz, Tomas Ibáñez, Jorge Sáenz, Jesús Angel Aparicio... Gainera, konpainiaren antzezlan garrantzitsuenen argazkiak publikatu dituzte liburuekin batera, baita Santi Ugalde aktoreari egindako elkarrizketa ere. Liburuak ez du falta prentsan agertutako artikuluen bilduma. Apurtzai-

leak, kale kalekoak, aurrerantzean ere zeresana emango dute, ziur. **I**



Trapu Zaharra: 25 años haciendo la calle.
Batzuen artean.
Artezblai.
123 orrialde. 20 euro.